

# noaue

**Udalak Aranerreka eremua  
biziberrituko du**

**Datorren astean jai giroan  
murgilduko da Zubieta**

**Abuztuaren 5ean,  
Musika Hamabostaldiaren  
kontzertua Salvatore  
parrokian**



**Merkataritza-sektorea, bidegurutzean**



# Escocia



943 373 613

**IRTEERA IRAILEAN**

Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

*MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA*

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



**ARRATSALDE PASA USURBILÉN**  
**UZTAILAK 21, LARUNBATA**

**·17:00-20:00**

**Benta eta Txiriboga tabernen aurrean**  
**PUZGARRIAK**

**Bordatxo eta Txirristra tabernen aurrean**  
**PAINTBALL LASER**

**TXIRIBOGA, BENTA,  
TXIRRISTRA ETA BORDATXO  
TABERNEK ANTOLATUTA**

**hurbilag** 

Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkarteak

## Albiste iruditan

# “Oreina”, Donostiako Zinemaldian

Iazko udazkenean, Koldo Almandoz donostiarrak zuzenduta, besteak beste, Aginaga eta Usurbilgo hainbat txokotan grabatu zen “Oreina” filmak, irailaren 21etik 29ra ospatuko den Donostiako 66. Zinemaldian lehiatuko du, Zuzendari Berrien atalean. Filma bera, irailaren 28an estreinatuko da zinema aretoetan. Euskal aktore ezagunek eta zereginotan estreinakoz ariko den Laulad Ahmed Saleh-k jatorri ezberdinetako pertsonaiak antzeztuko dituzte, hiria, industria-giroa eta natura bateratzen dituen hiri-periferiako hainbat pertsonaien bizimoduak.

### Orbeldi Dantza Taldea, “Dantza” filmean

Txintxua Films-ek ekoizti du “Oreina”. Baita aurten estreinatzeko duden “Dantza” ere. Euskal dantza tradizionalak



Zinemaldian eskaintzeaz gain, “Oreina” irailaren 28an iritsiko da zinema aretoetara.

ikuspuntu berritzailetik jorrazten dituen ikus-entzunezko honek ere Usurbilekin lotura estua du. Telmo Esnal zarauzta-

rrak zuzendutako lanean, Euskal Herriko hainbat dantza taldeek parte hartu dute; tartean Orbeldi D.T.-k.

## Laburrean

### Hurrengo odol ematea, irailaren 3an

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak hurrengo hitzordua aurreratu du. Datorren odol ematea irailaren 3an izango da, 18:00-20:30 artean Usurbilgo ambulatorioan.

### Datorren NOAUA, irailaren 7an

Zorion agur edo oharrik helarazteko irailaren 3ra arteko epea duzue. NOAUA!ko bazkideoi jakinarazpena: uztailaren 15etik aurrera egingo dugu bazkidetza kobraketa.

### 1958ko kinto bazkaria, irailaren 8an

Izena emateko epea abuztuaren 31n amaituko da. Zehazteke dago oraindik tokia eta prezioa. Kontu zenbakia hau da: 3035 0140 31 1401040516.

# noaúa

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eu ||| www.noaúa.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaúa.eu

Diseinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaúa.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.


Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

## J. M. Setien

**O**rganoa joaz eman nion nire agurra J.M. Setieni: nik daukadan errepertorio ederrena interpretatu nuen: Bach, Rachmaninoff, Haendel... Hori eta gehiago merezi zuen 21 urtez nire gotzain izan zenak.

Duela 35 bat urte katedraleko organista izateko eskatu zidan, baina ordurako Santo Tomas Lizeoko irakaslea nintzen eta nire zuzendariekin kontsultatu ondoren, ezezkoa eman nion, hain zuzen ere gazteekin egiten nuen lana garrantzitsuagoa iruditzen zitzaidala eta. Ez zion grazia handirik egin, baina gure harremana ona izan zen beti. J. M. Uriartek eskaini zidanean katedralean organoa jotzea gotzain elizkizunetan onartu egin nion 2001ean, hartu berria bainintzen aurre-erretiroa ikastolan. 1996an Aginagako Erretore izendatu ninduen Setienek; gustura hartu nuen lan berria, irakasle eta erreto-re eginkizunak betetzeko gaitentitzen bainintzen...

Artzain Ona katedralean ehunka pertsona bildu ziren.

12:00etan zen hileta ospakizuna. Jose Ignazio Munillak zuzendu zuen meza. Beste lau gotzain bildu ziren Munillaren inguruan: Ricardo Blazquez, gotzainen biltzarreko presidentea, Francisco Perez Iruñeko artzapezpikua, Mario Iceta Bilboko gotzaina eta Juan Maria Uriarte Donostiako gotzain emeritua. Ordezkarik politikoa piloa ikusi nuen bertan, besteak beste, Bakartxo Tejeria, Markel Olano, Eneko Goia, Josu Erkoreka.

Setien gipuzkoarra zen sortzez; Hernanin jaioa 1928an. Kristau erlijioak aparteko eragina zuen garai hartan eta gazetetan erabaki zuen abade izateko ikasketak hasia; 1951n apaiztu zen. 1979ko urtarrilean izendatu zuten Donostiako gotzain eta 2000. urtera arte jardun zuen apezpiku lanetan. Teologian oso ondo jantzitako gizona zela nabarmendu dute askotan haren jarraitzaileek; eta ikasketa horiek oinarri hartuta eman nahi izan zituen Euskal Herriko gatazka ulertzeko eta konpontzeko gakoak.

Bere konpromiso etikoa azpimarratuko nuke nik Setienen giza maila neurtzeko unean. Gure gotzain ohiarentzat giza

eskubideak aplikatu behar ziren politikan, ekonomian eta giza arlo guztietan. Mezak emanez bakarrik ezin da kristau elkarte egokirik sortu, are gutxiago zabaldu eta indartu. Eta pentsamendu hori ebanjelioan oinarritzen zuen; ezauna da bere gotzain-lemak: “ez naiz lotsatuko ebanjelioaz”, San Pablaren esaldi ezaguna. Betebehar moral horri jarraituz saiatu zen ETak eragindako arazo beldurgarri haiek salatzeko eta konpontzeko. Bazekien bakea eskubideen begirunean oinarritzen dela: “eskubiderik gabeko bakea ez da benetako bakea”, adierazi zuen 2007an bere liburua (“Setien, euskal gotzain bat ETaren aurrean”) aurkezterakoan. 2005eko San Sebastian homiliako pasarte hau: “Denok egin behar dugu egiaren eta egiarekin lan, bakea lortzeko ardura bakar baten esku utzi gabe”.

Etika jarri zuen beti giza arazoak konpontzeko muinean. Kazetari batek dioenez, ez zen inoiz izan mezu deserosoen beldur. Jende gutxi daki Setienek sortu zuela Gipuzkoan 1985ean “Gizakia helburu” (“Proyecto hombre”) proiektu

tu. Iñaki Aldabalde apaizak lagundu zion lan horretan. Italian ezagutu zuten antzeko erakunde bat eta haien metodologia gauzatu zuten hemen droga menpekotasunean dabilen gazteei laguntzeko.

Kritikak ere izan zituen, nola ez ba. “Hil da Setien, ETaren biktimak babesik gabe utzi zituen gotzaina” (ABC egunkaria). Maite Pagazak esan zuen “izotzezko bihotza zuela Setienek”. Borja Semperek honela berriz: “Setienek frogatzen du ez dagoela sinetsi beharrik gotzaina izateko”. Politika egitea egotzi zioten usu.

Bere kargua utzi zuenean 2000. urtean, honela zuzendu zen bere eliztarrei: “Esan nahi dizuet denak maite izan zaituztedala eta maitatzen jarraituko dudala, nahiz eta ez dudan jakin askotan maitasun hori behar bezala agertzen”.

Bere idazkien bildumak 8.000 orrialde baditu. Sakonki aztertzen ditu bertan gai politikoak, sozialak eta etikak, beti kristau ikuspegitik. Jose Mari adiskide, izan atsedan eta egun handira arte.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Aranerreka eremua biziberritzeko apustua

**A**pustu sendoa gainera, Usurbilgo Udalak bideratuko duena. Erreka garbitu eta ingurua biziberritu nahi du, “espazio horri aire berria eman”, gunearen erabilera handitu eta usurbildarrek erreka honekin duten harremana indartu.

Horretarako, batetik, Aranrekatik Kalezarrera igotzeko eskilarak berritzeko lanak amaitzean Udalak eta laster, eskilaren ondoan, eremu berdean jolaserako elementuak jartzekoak dira. “Espazio publikoa berrantolatzeko egindako Kale Irekiak parte-hartze prozesuan herriko haurrekin egindako saioetan egindako eskaera izan zen horixe bera: parkean jolaserako elementuak jartzeko. Urak Bide taldeak osatu du proiektua. Hala, ingurua kontuan hartuta eta integrazioa zainduz atonduko da parkea”.

## Uraren kalitatearen azterketa

Lanekin batera, Aranerreka-uren uraren kalitatea aztertu



“Ingurua kontuan hartuta eta integrazioa zainduz egokituko da parkea”. Irudi-muntaia: Udala.

## URAREN KALITATEA

**“Aranerreka-uren kalitatea aztertu eta erreka garbitzeko neurriak hartuko ditu Usurbilgo Udalak”**

eta erreka garbitzeko neurriak hartuko ditu Usurbilgo Udalak.

Horretarako, 50 urte bete dituen Añarbeko Urak-ek mankomunitateko udalerriek urarekin zerikusia duten ekintzak finantzatzeko egitasmoa abiatu du. Udalak diru-laguntza hau baliatu nahi izan du hain zuzen, Aranerreka garbitzeko. “Ekolur enpresari esleitu zaio zeregin hori”, ohartarazi dute. Ur kalitatea aztertuko dute lehenbizi, eta horretarako, isur-

ketak neurtzeko “saneamendu azpiegiturak ikuskatuko ditu Ekolurrek”, Udalak ohartarazi duenez. Lanok abuztuan bideratu asmo dituzte baserrietan. Aranerreka-uren kalitatea hobetuko luketen ekintzak gauzatzea aurreikusten du abendurako. Horren berri emango die Udalak herritarrei. 10.000 euroko inbertsioa bideratuko du egitasmo honetara.

## Udako aisialdiko ekimenen topaketa

Astetartean, goizez herria, kalean gora eta behera jolasean dabiltzan haur eta gaztetxoek betetzen bazaigu, adi ostegun honi. Are gehiago izango dira, Usurbilgo Udajolasek, Lasarteko, Zubietako eta Aginagako txokoek antolatu duten topaketari esker. Estreinakoz antolatu dute ekimena, bereziki harremanen esparruan eragiteko. “Iaz Oriara irteera egin genuen. Hango udalekuetakoak ondoan izan genituen, baina ez ginen gai izan halako harreman bat egiteko”. Hortxe hasi ziren, uztailearen 19rako iragarri duten ekimenean pentsatzen. Aurten auzoen gaia lantzeko asmoa zutela baliatuta, aisialdi



Usurbil, Lasarte, Zubietako eta Aginagako txokoek bat egingo dute ostegunean.

eskaintza ezberdinen topaketa antolatzeko erabaki dute. Haur kopuru handia izangoenez, bi eremutan banatuko dute topaketa. Zubietan bilduko dira batzuk, Usurbilen besteak.

Euskararen erabilera, inguruen ezagutza eta harre-

mantzea sustatu nahi dute. “Ekintzen bidez harremantzen gara” eta, adierazi digute udalekuetako begiraleek. Hortara, hormak puskatzera dator ekimen hau. Aisialdi talde bakoitzeko partaideen arteko harremanak indartzera, baina baita

inguruetako aisialdi taldeen arteko ezagutza sustatzera ere.

## Eskertza

Ez da izaten ari azken urteotako uztaile eguzkitsuenak. Horrek besteak beste, Udajolasen dinamikan eragin du. Egun bat baino gehiagotan jo behar izan dute aterpe eske, Oiarde Kiroldegira edo Sutegira. Momentuan deitu eta lekua uzteko jarritako erraztasunengatik eskerrak helarazi nahi dizkiete Kiroldegiko arduradun eta udal brigadari. Zubietako Txokoe-takoak ere aurten Kaxkapen dabilta, gunea uzteagatik eskerrak helarazi nahi dizkiete baita Herri Batzarrari.

# Hilerrri zaharra, behin betiko itxita

**A**kabo, herri erdigunean izan dugun hilerrri zaharrak berea egin du. Osasun Sailak ofizialki itxi du. Oraindik hormak zutik diren arren, barruko eremua hutsik dago jada, Udaletik gogorazati duten moduan, "hilerrri izatera" galdu du. Orain, lur eremu honek "onespen guztiak ditu beste zerbait izateko" zioten udal gobernu taldetik azken osoko bilkuran. Egin beharreko txukuntze lanen ostean, tokiari arnasa eman nahi dio Udalak, etorkizunean espazio horrek zer izan behar duen erabaki aurretik.



**Egin beharreko txukuntze lanen ondoren, tokiari arnasa eman nahi dio Udalak, etorkizunean espazio horrek zer izan behar duen erabaki aurretik.**

Modu honetan amaiera eman dio Udalak hilerrri zaharra husteko hilabete luzeko lan prozesuari. Zereginotan, Usurbilgo Gonzalez Ehorztetxea izan dute bidelagun. Victor Gonzalezek bideratu duten ezohiko lanketaren gaineko xehetasunak eskaini dizkigu lerrootan.

## NOAUA! Non abiatzen da zuen lana?

**Victor Gonzalez:** 2016an erabakitzen da ixtea. Udalak proposatzen du nola hustu behar den hilerria. Modurik zuzenenean egin da. Herriari jakinarazi zaio eskura zeuden baliabideetatik, epe motzean gorpuak ateratzen hasiko zela Udala eta gorpuak berreskuratu nahi zituzten guztiei eskariak egiteko aukera jakinarazi zuen. Ehorztetxe gisa zerbitzu hau eskaini genuen. Prozesua iazko martxoan edo apirilaren aldera abiatu genuen, gure ehorztetxearen eta udal brigadaren artean. Gugana jotzen zuten guztiak udalean eskaera bat egin behar zuten, udalak eskaera baimendu eta orduan ateratzen zen lurpetik gorpuak. Udaletik, hilerrri berrian panteoi berriak eskatzeko aukera eskaini zen baita, hilerrri zaharrean hildakoa lurperatua zutenek, bertan sartu ahal izateko.

**1.500**  
**"Hilerrri zaharrean zeuden 1.500 gorpu inguru atera, erraustu eta hilerrri berriko Errautsen Parkean lurperatu dituzte"**

## Azalduguzu, nola izan da gorpuak ateratzeko egin duzun lanaketa.

230 baten gorpuak berreskuratzeko eskaerak egin zituzten herritarrek. Sei bat hilabeteko prozesua izan zen, oso modu zorrotzean eginiko lana. Defuntu bakoitza atera zen. Bakoitza identifikatu eta modu independentean erraustu zen. Errauts horiek norenak diren dokumentatu eta familiei entregatu zaizkie dokumentazio zehatzarekin. Nolabait esatearren, modu pertsonalizatuan egin zen. Gorpuak ateratzerakoan, haiek ikustera joan nahi zuten familiei horretarako aukera eman zitzaie, nondik atera ziren ikusteko eta zer atera zen ikusteko. Gero egunean bertan erraustera bidaltzen ziren, eta handik egun batzuetara errautsak entregatzen ziren. Gure ehorztetxeak ere errautsak deposituan uzteko aukera eskaini zuen, doan, jende asko baitzegoen errautsekin zer egin ez

zekiena. Hori guztia amaituta, azken hildakoa atera ostean, prozesua eten zen. Denbora bat eman zen, eta gero hilerrri zahararen itxiera prozesua abiatzen da. Kasu honetan, guri eta gaiotan espezializatuak dauden enpresei laguntza eskatu zitzaie, gorpuak ateratzeko. Hilerrri zaharra osorik hustutzen hasi ginen. Prozesu hau beste modu batean bideratu zen, lurpean nahiz panteoietan dauden hildakoen arrastoak atera ziren. Gero gu arduratu gara, defuntu horiek errausketa-labera eraman, erraustu eta gero, hilerrri berriko errautsen parke berrira eramateaz, han lurperatzeko. Errautsen parkea lau eremutan zatitua dago. Bat, soilik hilerrri zaharretik zetozen errautsentzat erabiltzea adostu zen.

## Zenbat gorpu atera dituzue guztira?

1.500 bat bai ziur gutxi gorabehera. Halere, ez da Usurbilen hustu den lehen hilerria. Duela 10 urte, Usurbilgo komentukoa hustu genuen. Komentua eraitsi baino lehen, bertan lurperatuak zeuden 156 monja atera eta hilerrri berrira eraman genituen.

## Lan gogorra izango zen ziur, denbora, mimo eta sentsibilitate handia eskatuko zuena.

Defuntuak direla ulertu behar dugu. Kontu handiz lan egin da, inor ez mintzeko. Herritarrek dira, barruak mugiarazten ditu horrek. Gure lanetako bat, senideekin kudeatu beharrekoa, beren defuntuen gorpuak ikustea izan da. Beti gurekin batera joaten ziren, defuntuak ikusi nahi zituzten senideak. Beste pertsona batzuk ez zuten ikusi nahi izan. Heriotzak inoiz ez dira ahazten, denbora pasa ahala mina toleratzen zoaz. Lasaitzen doa egoera. Baina hilerrri zahar baten hustutzearen aurrean, sentimendu horiek guztiak azaleratzen dira berriz. Egoera pixka bat lasaitzen ahalegintzen gara, nahiz egia esan oso zaila izan.

## Lan egiteko modu hau ohikoa da?

Hilerrietan urte kopuru bat igarotzean handik ateratzen dira hildakoak. Baina Usurbilen, maila honetan, urtebeteko epean, milatik gora defuntu atera beharra herri batean, oso salbuespeneko egoera bat da. Guk ez dugu berriz halakorik biziko. Herriarentzat ere ulertzen dut salbuespeneko egoera izan dela hau.

## Espazio hau nola irudikatu behar dugu aurrerantzean?

Behin hildakoak atera eta erabat saneatu ostean, txukuntze lanak egingo dituzte. Eremu irekian bilakatuko da eremua. Hilerrri zaharra XIX. mendetik dago hor. Etorkizunean, hilerrri zaharra desagertzean ingurua aldatuko da.

## Ez da arrastorik geratuko.

Ez. Berezia da hilerrri zaharra, bi zati ditu. Usurbilgo hilerrri zaharra garai batean, egun denaren erdia zen. Atetik sartu eta hasieran dagoen zen eremu zaharrena. XIX. mendetik 1987ra arte lurperatu ziren bertan hildakoak. Zati berria eraiki zen gero.

# “Hilerrri guztiek dituzte mugak”

**NOAUA! Denbora bat pasa eta lekua uzteko gorpua ateratzeko lanek segida izango dute etorkizunean hilerrri berrian ezta?**

**Victor Gonzalez:** Hilerrri guztiek dituzte mugak. Usurbilen halere oraindik espazio nahikoa bada eta lur eremu handia dago, hilerrri bezala hazteko ere. Usurbilgo hilerrrian, benetan leku falta egon arte ez dute derrigortzen inoren gorpua ateratzera. Baten bat atera bada, eskakizun pribatu bat egon delako izan da, gorpua beste lekuren batera eramateko, edo senideek panteoi bat eskuratu eta hara eraman nahi zutelako.



**Errautsen Parkea “oso alternatiba polita da, errautsak nora eraman jakin ez eta gero hildakoa non bisitatu ez duenarentzat”, Victor Gonzalez esanetan.**

## VICTOR GONZALEZ

**“Errautsen Parkeak irtenbide ezberdin bat eskaintzen du, errautsekin zer egin erabakitzerakoan”**

**Honek ere balio behar digu jabetzeko, hilerrrian ere aldi baterako daudela gorpua.**

Jakintzat ematen dugu maite dugun hori betiko hor egongo dela eta beti joan ahalko zarela hilerrira bisitatzera, baina ez da hala. Halere Usurbilen, berrogei urtetik gora lurperatua zeraman gorpurik atera izan

dat. Beste hilerrri batzuetan, 15 urteko epealdia finkatzen

da, urte horiek igarota gorpua hilerritik ateratzen da. Baina Usurbilgo eredia ondo dagoela deritzot, ez nuke aldatuko. Jendeak badaki denbora zehaztu gabe bat izan dezakeela hilerrira joateko, nahiz orain joerak aldatzen ari diren. Gazteen artean hildakoak erraustu eta hildakoak nahi zuen lekuren batean uzteko joera han-

diagoa dago. Halere, hildakoak lurperatu eta hilerrira joateko ohitura handia dago oraindik.

**Hilerrri berriak ere orain aukera zabalagoa eskaintzen du, errautsen parkearekin.**

Orain arte bi aukera ematen ziren, hilerrira joan nahi zutenen artean; lurperatu edo kolunbario batean sartzea, errauts ontzi batean. Baina orain, errautsen parkearekin sortu den aukera oso polita da. Errautsen Parkeak irtenbide ezberdin bat eskaintzen du, errautsekin zer egin erabakitzerakoan. Prozesua ikusgarria da. Parkeko hartxintzar zuriak kentzen dira, errautsak banatzen dira bertan, hartxintzarrekin estali eta gero ihinztargailuek botatuko urak parkearen hondora arrastatzen ditu errautsak, parkearekin, lurrarekin bat egin ez. Oso alternatiba polita da, errautsak nora eraman jakin ez eta gero hildakoa non bisitatu ez duenarentzat.

## Aginagako Arrate elkarteko tabernaren kudeaketa zerbitzua, esleitzear

Uztaila hasierako NOAUA:in berri eman genizuen moduan, hilabete hasieratik itxita dago Aginagako Arrate Elkartearen taberna, orain arteko kudeatzaileei kontratua amaitu ostean. Zerbitzu hau esleitzeko prozedura abiatu duela berri eman du orain Usurbilgo Udalak. Deialdian parte hartzeko

oinarriak argitaratu ditu. Eskabideak aurkezteko uztailearen 26ra arteko epea dute interesdunek. Honatx xehetasun gehiago:

- Eskaini beharreko zerbitzuak: taberna kudeatzea, taberna-jantokiaren mantenu, ustiapen eta garbiketa; komun eta tabernatik beherako

eskilara eta beheko sarreraren garbiketa; zahar egoitzako gellen atezaintza-lanak.

- Kontratuaren iraupena: urtebetekoa, 4 urte betera arte luzagarria.

- Prezioa: 25 euro, gutxieneko hileroko kuota (+ %21eko BEZ-a, guztira 30,25 euro).

- Betebeharreko gehiago:

B2 hizkuntza gaitasun maila egiaztatzea; elikagaien manipulazile titulua izatea.

- Eskabideen aurkezpena: uztailearen 12tik 26ra, udal erregeroan edo postaz bidalita.

Informazio gehiago, usurbil.eus atarian (“Kontratatzailailearen profila” atalean).

**Parti**  
Partiaren  
Jatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**Otar-Goxo**  
Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Igor Gorriti, Artzabal jatetxea:

## “Gastatzeko beste ohitura bat zegoen lehen”

**K**risia igaro den ideia sustaitzen hasi da. Saltokietan eta ostalaritzan kontsumoak gora egin duela esaten da. Bestelako seinaleak ere badira. Saltoki handiek euren azalera handitzeko eskaerari erantzun nahian edo, Lasarte-Oriako denda batzuetan txartel beltzak ipini dituzte erakuslehoetan. Merkataritza txikia arriskuan dela ohartaraziz. Merkataritza-sektorearen inguruko argibide gehiago batu asmoz, hiru solaskiderengana jo dugu. Nork bere talaia-tik gauzak nola ikusten dituen azaldu diezagun.



“Imaginazioa landuz, jendea mugitzeko ahalegina egiten ari gara”.

**NOAUA! Santixabelak amaitu berri diren honetan, pozik al zaudete jaiek eman dutenarekin?**

**Igor Gorriti, Artzabal.** Balorazioa positiboa da. Egia da beste herri batzuekin bat egitea alukeria dela. Azkenaldian halaxe gertatu da. Lasarte, Igeldo edota Orioko festekin kointziditu izan du. Behin ez zuen Lasarterekin bat egin eta nabaritu egin zen. Lasarten kontzertu handiak antolatzen dituzte eta horrek beti egiten du itzala. Hori hala da.

Gu bazkarietatik eta afarietatik bizi gara. Gurea ez da parranda leku bat. Guk beteta izan dugu jaietan eta balorazioa positiboa da.

**Krisi ekonomikoak eragina izan du ekonomiaren arlo guztietan, baita ostalaritzan ere. Badirudi ekonomia suspertu egin dela eta horrekin batera kontsumoak gora egin duela. Horrelakorik igarri al duzue zuenean?**

Duela sei urte hasi ginen hemen, Artzabalen, krisia bete-betea zela. Aurretik, langile bezala aritzen nintzen ostalaritzan, eta esango nuke gastatzeko beste ohitura bat

**IGOR GORRITI**  
**“Afalondoren taberna beterik edukitze hori ez da bueltatu. Hori da krisiaren ondoren errekuperatu ez dena”**

zegoela lehen. Beste era batera gastatzen zen. Afaltzera joaten zinen eta sagardo edo ardo botila gehiago eskatzea ohikoa zen. Orain beste bat atera aurretik galdetu egiten da, eta askotan ez da ateratzen, “postre

atarian gaude eta keba”. Orain murriztu egin dira ohitura horiek. Afaltzera joaten zara eta kafearekin kito; maiz ez da gero kubatarik edo antzekorik eskatzen.

Poteoa ere aldatu egin da. Ostiraletan, afalaurretik, bi edo hiru trago hartzeko elkartzen da jendea baina toki berdinean hartuko dituzte, edo gehienez ere bi tabernetan ibiliko dira eta bi zurito hartuko dituzte. Dena den, afaldu ondorengo da gehien galdu dena. Afalondoren taberna beterik edukitze

hori ez da bueltatu. Hori da krisiaren ondoren errekuperatu ez dena.

Gainontzean, krisiari ez daikit buelta eman ote zaion, lan baldintzak ez dira onak eta prekariedade handia dago.

**Krisiaren aurrean, orain dinamikoagoa al da ostalarien eskaintza?**

Hemen garai batean bazen Usurbilgo Tabernarien Elkarte eta kontzertuak antolatzen zituzten. Urte onak izan ziren baina denborarekin hori desagertu egin zen. Hurbilago sortu zenetik, sektore potenteena ostalaritza da. Azken sei urteotan gauza asko antolatu dira: *Tipi Tapa*, *Goazen kalera...* Elkarlanean aritu gara Dantza Taldearekin edo Gure Esku Dagorekin.

Hurbilagotik aparte, bi tabernen artean ere antolatu izan dira gauzatxoak. Imaginazioa landuz, jendea mugitzeko ahalegina egiten da. Urteko zortzi egun horietaz aparte (festak, Urtezaharra, Gabonak, Sagardo Eguna...), egoerari buelta emateko horrelakoak egin behar dira. Gaueko mugimendu hori, estra bezala, ondo dator urtea pasatzeko.

## “Baliabide onak ditugu Artzabalgo plazan”

**NOAUA! Festetan, Elustondo Anaiak aritu ziren Artzabalen. Ondo joan al zen?**

**Igor Gorriti, Artzabal.** Giro ona egon zen, jatorra. Erantzunarekin oso pozik gaude.

**Kaxkotik kanpoko ekitaldiak ugaltu beharko liratekeela uste al duzu?**

Hemen, Artzabalen, jubilatuekin elkarlanean aritzen gara eta Guria eta Laukoterekin

batera hori antolatzeko aukera izan genuen. Beste hiru erromeria egingo dira festetatik aparte. Datak lotzen gabiltza orain. Ulertzen dut herri mailako ekitaldiak kaxkoan egitea baina Artzabal bi minutura dago eta gauza batzuk egiten dira. Auzoa indartzeko ere egokia da. Gainera baliabide onak ditugu hemen, frontoia, belazea... Plaza ona dago hemen.



Elustondo anai arrebak Artzabalgo plazan aritu ziren festetan.



# “Urbilek, Garberak, Txingudik... Gune handi denek dituzte handitzeko gogoak”

**NOAUA!** Merkataritza-gune handien balizko hazkundera pil-pilean da hilabeteotan. Batzuk herritzeko eskaera egin dute, beste batzuk handitzeko asmoak dituzte. Gai honek arduratzen al zaitu?

**Igor Gorriti, Artzabal.** Arduratu bai, dudarik gabe. Baina ez nire sektorearengatik zehazki. Gaztetxoak hara joan eta bertan bazkaltzeko joera badute. Baina herri txikietan prezioak beste batzuk dira eta toki handi horietan garestiagoak dira. Konpetentzia aldetik, tira... Hemen 10 euro kostatzen bada han 16 edo 18 euro, ia doblea. Behin joango zara baina herriari gehiagotan geratuko zara erosotasunagatik.

Konpetentziak baino gehiago arduratzen nau herri mailan gertatuko denak. Eragina izango duela, zalantzarik ez dut. Urbil ireki zenetik herrian denda gutxiago daude. Niretzat Oiartzun da adibide garbia. Oiartzunek merkataritza-gune asko ditu inguruan eta herria hilda dago, denda gutxi dago. Inguruan ditu Alcampo, Carrefour, orain Lidl bat ireki behar dute... Askotan Orio edo antzeko herriekin alderatu da gure herria. Baina Usurbil ezin da herri askorekin konparatu, Usurbilgo biztanleen erdia auzoetan bizi baita. Eta auzoetako horiek kotxea hartzen dute, bai ala bai. Eta erosketak Usurbilen egingo dituzte edo beste merkataritza-gune batean. Beraz, Usurbil



Egoeraren aurrean, “herrian bada zerbait egiteko asmoa. Saltokiak plastiko beltzekin estaltzeko ideia planteatu da”.

## IGOR GORRITI

**“Herri mailan eta gizarte mailan espabilatu beharko dugu, dendak irekita eta herria bizirik egotea nahi baldin badugu”**

3.500eko herri txiki batean gertatzen da. “Zortzi arropa denda daude Orion”, entzun izan dut. Zortzi arropa denda egongo dira baina han 5.000 biztanle bizi dira bertan. Usurbilen ez dugu errealitate hori.

Kezkatzen nau, batez ere kezkatzen nau Irunera bitarteko denek dituztelako handitzeko gogoak, Urbilek, Garberak, Txingudik... Urbilek dio irau-

go baldin badu handitu egin behar duela, bestela ez duela aguantatuko irekita. Planteamendu hori lekuz kanpo ikusten dut. Eta anpliazioak ez badu funtzionatzen? Eta handitu eta gero itxi egin behar baldin bada? Zeinek kudeatuko du hori? Galeria hutsak aurkitzeko, nahikoa espazioa badago Usurbilen. Herri mailan eta gizarte mailan espabilatu beharko dugu, dendak irekita eta herria bizirik egotea nahi badugu.

Egia da Amazon dagoela hor. Nork ez du Amazonen zerbait erosi? Horri ezin zaio konpetentziarik egin. Errazegia da erosteko. Herri mailan badago zerbait egiteko asmoa. Salto-

kiak plastiko beltzekin estaltzeko ideia planteatu da.

**Lasarte-Orian egin da antzeko kanpainarik.**

Sentsibilizatzeko egiten da. Baina efektibitate gutxi du. Zure amorrua adierazteko modu bat da behintzat.

**Amorrua sumatzen al duzu Usurbilgo dendarien zein ostalarien artean?**

Amorrua baino, ezina. Elektrodomestiko denda bakarra genuen eta itxi egin da. Eta ez dago hori ordezkatzeko duenik. Ume arropa denden kasuan, azken boladan hiru saiakera egin dira eta hirurak itxi egin behar izan dituzte.



**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

# Javier Colorado, Urbilgo kudeatzailea: “Hazkunde esponontziala bizi dugu inguruan”

**NOAUA! 18 urte bete ditu Urbilek. Zein egoeratan iritsi da adin nagusitasunera?**

**Javier Colorado, Urbil:** Aisialdian eta merkataritza eskaintzan, Gipuzkoako erreferentziatzko gune gisa iritsi da Urbil adin nagusitasunera. Aintzat hartzen den erreferentzia sendoa gara. Oso modu positiboan baloratzen dugu denbora honetan lortu dugun posizionamendua. Datozen urteetan izango ditugun erronken inguruan hausnartzeko garaia ere bada.

Testuinguruak argazki zorrotza erakusten digu, eskaintza oso lehiakorra da eta merkataritza-guneen hazkunde esponontziala bizi dugu inguruan. Arrazoi horregatik, Urbil egitasmoak nora jo behar duen planteatzeko gai izan behar dugu.

Urbilgo jabetza, nola ez, hausnarketa honetan murgilduta dago aspaldian. Eta etorkizunari begira, ardatzetako bat gaur egungo merkataritza-gunearen handitzea izango da, bere aisialdi eskaintza eta bere merkataritza eskaintza zabaldu ahal izateko.

**Urteotan, kontsumo joerak aldatu egin dira. Krisi ekonomiko bat ere egokitu da tartean.**



Javier Colorado Urbilgo kudeatzailearen esanetan, “datozen urteetan izango ditugun erronken inguruan hausnartzeko garaia da”.

## JAVIER COLORADO

**“Etorkizunari begira, ardatzetako bat gaur egungo merkataritza-gunearen handitzea izango da”**

**Egoera ezberdinetara egokitzea erraza izan al da?**

Egoera ezberdinetara egokitzen saiatu gara, gure bisitarien soluzio lehiakorrak eskainiz, euren erosketak eta euren aisialdi garaia errazak eta eskuragarriak izan daitezzen. Duela urte batzuetatik hona, aisialdi planak eskaintzen ditugu behe-

rapenekin, Urbibox izenekoak, aurrezpen handia suposatzen dutenak. Adibidez, 13 euroren truke zinera eta bazkaltzera edo afaltzera joateko plana eskaintzen dugu. Baina gustu eta publiko guztientzako planak ditugu: familientzat, modaren zaletuentzat, estetika-planak, urtebetetze festak... Gaur egun, sei plan ezberdin ditugu eta arrakasta handia dute, hilabetero 1.100 unitatetik gora eskuratzen baitira. Behin ezagutzen gero, bisitariak errepikatu egiten du. Eskaintza zabaldu izateaz gain, eskaintza bera osatua delako eta modu onean ateratzen delako. Horretaz aparte,

promozio, zozketa eta kanpaina ugari sustatu ditugu; sariak merkataritza-gunean bertan trukatzeko aukera eskainiz.

**Gaur egun, zein da Urbilek bezeroari egiten dion eskaintza?**

Kalitatea, prezio onak eta zerbitzuko onak eskatzeaz gain, bezeroak nahi du erosketari lotutako esperientzia gero eta hobea izatea. Urbil espazio goxo bat izan dadin, horren alde egiten dugu lan. ‘Benetako uneak’ bizi ahal izateko, gure logotipoan jasota ditugun mezuak dioen moduan.

Familiari eskaintako aisialdian, gune sendo bat gara eta gure aisialdi eskaintzan denen beharrak oso kontuan ditugu. Batetik, doaneko bi zerbitzu eskaintzen ditugu: haurtzaindegi moduko toki bat bi begiralek zaindua, gurasoek erosketak egin edota atseden tarte bat har dezaten; eta jolaserako toki bat PlayStation-en azken berritasunekin (hau ere, guneko langileek zaindua). Bestetik, urtean zehar ekitaldi ezberdinak antolatzen ditugu: musika, herri kirolak, moda edo txikien aisialdiarekin lotutako eskaintza; *Patrulla Canina*, *Masha* eta *Artza*, *Txirri Miri* eta *Txirribiton* edota *Danborrada*.

## “Berrikuntza bat behar dugu, sektorean gailendu diren tendentzia berrietara hobeto egokitu gaitezten”

**NOAUA! Bezeroari dagokionez, urteotan zein neurritan aldatu da eroslearen profila?**

**Javier Colorado, Urbil:** Aisialdia gero eta gehiago interesatzen zaio bisitariari, horregatik Urbilen garrantzia handia eman diogu beti bisitaren alderdi ludikoari. Gure zine aretoek urteak daramatzate ikusle kopuruan liderrak izaten. Ci-

nesak 8 areto ditu eta 1.522 eserleku, eta bere bisitarien eskaintza ugari egiteagatik nabarmentzen da. Gainera, Txikiguay haur parkea dugu, herrialdeko bakarrenetakoa da eta urtero milaka bisita jasotzen ditu. Nazioarteko marka ezagunekin eta tokiko gastronomia-guneekin osatzen da gure eskaintza gastronomikoa,

nahasketa orekatua erdietsiz.

Era berean, gure bezeroek askotan eskatu dizkigute marka lokalak, nazionalak eta nazioartekoak, baina gaur egun espazio faltarengatik ezin ditugu txertatu. Merkataritza-gunearen etorkizuneko handitzea hortik doa, eskaintza zabalagoa izan dadin. Aisialdi arloan alternatiba

gehiago emanez, gure bezero guztien eskaerei erantzun ahal izateko. Eta horretarako berrikuntza bat behar dugu, sektorean gailendu diren tendentzia berrietara hobeto egokitu gaitezten.

Komertzio lokalari aukerak eskainiko dizkion gune bat izan nahi dugu eta Urbil eskualdearen topaleku bilakatu.

# “Usurbilgo Udalaren irizpide onean itxaropenak ditugu jarriak”

**NOAUA! Eusko Legebiltzarrak hauxe eskatu berri dio Eusko Jaurlaritzari: Lurrealde Plan Sektorial berrian azalera handiko merkataritza-gune berriak eta dagoeneko zabalik dauden handitzeak mugatu ditzala. Ekainaren 14ko albiste honek zein neurritan baldintzatuko du zuen handitze-egitasmoa?**

**Javier Colorado, Urbil:** Merkataritza ingurunea asko aldatu da azken urteotan, eta aldatzen jarraituko duela dirudi. Gipuzkoa are ingurune lehiakorragoan bilakatu da eta hazkunde nabarmen bat eman da merkataritza eskaintzari eta aisialdi mailako eskaintzari dagokionez. Azken albisteen arabera, eta une honetan indarrean den Lurrealde Plan Sektorialaren (LPS) baitan dauden gabeziak aprobetxatuz, azalera handiko merkataritza-guneen handitze eta eratzeari oneritzia emango zaio berehala. Horregatik, gure eskaintza handitzeko premia beteko duen proiektua hezurmamitu nahian gabilta, merkataritza ingurune berri honetan lehiakorak izaten jarrai dezagun, eta honek metro koadro gehiagoren premia dakarkio Urbili.

Gure proiektua atariko fasean aurkitzen da. Urbilen handitzearekin batera garai berrietara egokitu ahal izango genuke, gure aisialdi eskaintzaren zein merkataritza kutsuko azalaren handitzea ekarriko luke. Efizientzia eta iraunkortasunean oinarritutako estetika berritu batez baliatu ahal izango genuke. Proiektuak, noski, enpleguaren sorreran eta inguruko aberastasunean eragin garrantzitsua izango luke.

Oraingoz ezin dugu xehe-tasun handirik eman, gaur egungo araudia definitu gabe dagoelako. Honek ez ditu gure etorkizuneko planak alda-



“Gure proiektua atariko fasean aurkitzen da”, Javier Coloradok adierazi digunez.

## GARBERA HANDITZERA DOAZ

**“Egokiena litzateke denek joko arau berdinekin lehiatzeko aukera izatea”**

tzen. Bilera ezberdinetan esan zitzaigun LPS berriak mugak ekarriko lituzkeela ziurrenik, baina egokiena litzateke denek joko arau berdinekin lehiatzeko aukera izatea (Donostiako Udalaren baimenarekin, Garberak azaroan hasiko ditu berritze-eta handitze-lanak).

## Zer nolako harremana duzue Lasarte-Oria eta, bereziki, Usurbilgo Udalarekin?

Lasarte-Oriako Udalarekin onak dira harremanak, gure etorkizuneko planen berri badute. Usurbilgoarekin lehen unetik oso gardenak izan gara gure handitze-egitasmoa azaltzeko garaian. Proiektua eta bere garapena aztertzeo xedez, bilera ugari egin ditugu alkatearekin eta teknikariek.

Gure proposamena bideratzeko ahaleginean, Udalaren irizpide onean itxaropenak di-

tugu jarriak. Enplegua eta aberastasuna sortzeko garaian, Urbilek duen garrantziaren jabe direla jakin badakigu.

**Ekainaren 14ko instantzia berean, Eusko Jaurlaritzari beste eskaera bat ere egin zitzaion: merkataritza txikia babesteko politika berriak garatu ditzala. Honek azalera handien eta tokiko dendari txikien arteko eztabaidara garamatza.**

Azalera handiko merkataritza-guneen eta merkataritza lokalaren arteko elkarbizitza bateragarria dela uste dugu. Eskaintza osagarria baita. Interesgarria litzateke Urbil eta saltoki txikien arteko elkarlan akordioak bideratzea, herria erreferentzia-gune bihurtu ahal izateko. Bereziki epe laburrean errealitate izango diren beste merkataritza poloei aurre egiteko. Gainera, adi egon behar dugu denok. Hobetu eta eboluzionatu egin behar dugu, gora doan beste erosketa ohitura batera egokitu gaitzen: online salerosketa.

## “Urbilek eta Usurbil KE taldeak ditugun balioei ikusgarritasuna eman nahi diegu”

Kolaborazio hau ez da berria, baina aurrean nesken eskubaloia sustatzeko aurrepauso bat eman nahi izan du Urbilek, “senior mailako egitasmo berriari gure laguntza eskainiz. Klub barruan hainbesteko ilusioa piztu duen egitasmoa. Kirol jarduerari argia emateaz gain, Urbilek eta klubak dituzten balio komunei ikusgarritasuna eman nahi diegu: ahaleginari, talde-lanari eta influentzia-eremuarekiko konpromisoari”.



Senior mailako nesken taldeak Urbilen babesa izango du denboraldi berrian. Argazkia: Urbil.

# Marije arropa denda:

## “Jendeak online erosten duela igartzen da”

**NOAUA!** Badirudi krisiaren okerreña igaro dela. Azken boladan kontsumoak gora egin duela esaten da. Zuek ere nabaritu al duzue?

**Marije.** Ez da ezer aldatu.

**Nerea.** Orain dela zazpi bat urte ireki genuen denda. Orduan ez genuen krisia nabaritu, baina duela lau urtetik hona bai.

**Espanian duela 10 bat urte eman zen krisia. Gurera atzerapenarekin iritsi al da, akaso?**

**M. Bai.**

**N.** Gure kasuan behintzat, hala izan da. Sentsazioa hori da, beranduxeago iritsi zela hona.

**Beherakada hori ez al da errekuperatu azken bi urteotan?**

**N.** Ez, antzeko jarraitzen du.

**M.** Nabaritzen da jendeak online erosten duela. Askok gainera. Eta hemengo jendeak herrian gutxi erosten du. Kanpora jozten du hemengo jendeak.

**Usurbildarrek beste toki batzuetara jotzen dute.**

**M.** Hala uste dut nik.

**N.** Jendeak erosten du. Betiko bezeroak baditugu baina nabaritzen da jende asko Urbil eta Garbera bezalako tokietara joaten dela. Handitzen badituzte, ba pentsa. Desastre bat izango da guretzat.

**Azken urteotan enplegua sortu da baina prekaritate handia dago. Horrek ere zerikusirik izango du.**

**N.** Hala da. Eta horrelakoetan diru bat geratzen bazaizu, diru hori ez duzu galtza batzuetan gastatuko. Umearentzako akademian erabiliko duzu akaso. Orain, gehiago begiratzen da non gastatu.

**Moda denda zaretan aldetik, konpetentzia handiago al da**



Marije dendan, bezeroak etxera eraman dezake arropa, probatzera. “Aukera gehiago nork eskaintzen dizkizu?”.

### MARIJE DENDA

**“Orain dela zazpi bat urte ireki genuen denda. Orduan ez genuen krisia nabaritu. Baina duela lau urtetik hona, bai”**

**zuentzat Urbil bezalako toki bat?**

**N.** Bai, baina uste dut ez dela bakarrik modarentzat kaltegarria. Orokorra izango litzateke.

**Zuen moduko dendariak zer diote? Antzeko sentsazioak al dituzte?**

**M.** Hurbilagoko bileretan nabaritzen da...

**N.** Gaur egun oso zaila da denda bat mantentzea.

**Zuen buruari maiz egingo zeniote antzeko galderarik: honi aurre egiteko zer egin daiteke?**

**N.** Egiten dira gauzak eta plan-teamendu ezberdinak proposatzen dira bileretan. Zer egin dezakegu jendea mugitzeko, azoka bat? Arazoa sakonagoa da ordea.

**M.** Azoka noiz jarri behar dugu, igande batean?

**N.** Eta hemen duzuna hor (aldamenean den Dema Plaza seinalatuz) erakusteko? Jendea hona sartu daiteke zer dagoen ikustera, ez bakarrik erostera. Erraztasun gehiago ezin da eman.

**M.** Gurean adibidez, arropa etxean probatzeko aukera duzu.

**Badituzue horrelako eskaerak egiten dituzten bezeroak?**

**M.** Bai, betiko bezeroak dira. Emakume bat etortzen bada senarrarentzat arropa bila, “hiru galtza eta bi alkandora eraman

etxera probatzera, gustuko duzuna hartu eta pagatu eta gainontzekoa bueltatu”. Aukera gehiago nork eskaintzen dizkizu?

**‘Herriko merkataritza arriskuan’ dioten kartelak ipini dituzte hainbat herrietako erakusleihoetan. Hemen ere, horrelako zerbait egin beharko al litzateke?**

**M.** Bai, baina denok. Ez dendariak bakarrik, baita tabernariak ere.

**N.** Azkenean, denoi eragingo digu. Urbil handituko balute, ostalaritza ere arriskuan egongo litzateke.

**“Urbil, Garbera edo edozein merkataritza-gune handitzen edo berritzen badute, guretzat desastrea izango da”**

**NOAUA!** Urbilen egitasmoei buruzko informazio zuzena jasotzen al duzue? Edo prentsatik izan duzue horren berri? **N.** Hurbilago elkartearen bitartez; alkateak ere hitz egin du gurekin. Orain arteko informazioa badugu.

**Amaitzeko, zerbait gehitserik nahi?**

**N.** Krisia guretzat oraindik ez dela pasa eta Urbil, Garbera edo edozein merkataritza-gune handitzen edo berritzen badute guretzat desastrea izango dela.



SANTIOAK  
**2018**  
*gehigarri berezia*

# Tantoei puntua jarriko dien bertso pala jaialdia

Estreinakoz antolatuta dute Zubietako jaietan, kirola eta kultura, pilota eta bertso zaletuak bateratuko dituen bertso pala jaialdia. Izenak dioen moduan, bi jardunak uztartuko dituen saioa iragarri dute uztailearen 25erako. Parte hartzaileen artean, bi lehengusu ariko dira nor baino nor; Miriam Arrillaga palan eta Markel Eizagirre bertsoan.

**NOAUA! Nondik jaso duzue bertso pala jaialdian parte hartzeko gonbita?**

**Miriam Arrillaga:** Zizurkilen ikusi nuen, gauza polita iruditu zitzaidan. Zerbait berria zela iruditu zitzaidan, herriarentzat ere desberdina. Jai Batzordean proposatu nuen, gustatu zitzaizen eta aurrera egin dugu.

**Markel Eizagirre:** Gonbita Miriamen bidez jaso nuen. Bertso pala ekimena egiteko asmoa zuela eta ia bertsoan egingo nuen. Dударik gabe baietz, halako plazak ez ditugu askotan izaten. Azkenean bi zarauzta ariko gara bertsoan eta lau jokalarri palan.

**Ohiko pala partida izango da, bertsoek girotua ordea.**

**M.A.:** Ohiko pala partida izango da bai. Atsedendietan bertsoan arituko dira, animo gisara. Bertsoei ere garrantzia emateagatik gelditu beharko



Uztailearen 25ean, kirolak eta bertsoak bat egingo dute Zubietan. Miriam Arrillaga palan arituko da eta Markel Eizagirre bertsoan.

## MIRIAM ARRILLAGA

**“Ohiko pala partida izango da bai. Atsedendietan bertsoan arituko dira, animo gisara”**

dugu dezentetan.

**Esperientzia berria izango da hau biontzat?**

**M.E.:** Bai, egia esan duela egun batzuk egokitu zait bertso pilota jaialdi batean parte hartzea, baina pilotari gisa. Behin edo behin tokatu izan zait ikustea. Miriamek aipatu moduan, lauazpost tanto jokatu eta bertsoarako etenaldia egingo da. Pala jokalarri bikote bakoi-tzak botillero bana izango du. Botillero horiek, kasu hone-

tan, bertsoan ariko dira.

**Zer bertso entzungo ditugu, partidara begirakoak? Handik kanpo, inprobisatuak?**

**M.E.:** Partidekin lotutakoak bai baita Zubietari lotutakoak ere. Erraustegiarekin ere zerbait joango da. Giro pixka bat jartzeko publikoarekin sartu beharko da. Ez dadila pala partida batean geratu.

**Zer iruditzen zaizue geroz eta ohikoagoa den formatu nahasketak hau? Bi diziplinak aberastuko ditu.**

**M.E.:** Bertsoarekin bai hainbat konbinaketa egin izan dira; bertso musikatuak adibidez. Kirolarekin, edo beste edozein kultur ekitaldiekin konbinatzen da. Esperimentuak orain arte ondo ateratu dira. Arriskatu

edo pauso bat aurrera eman behar da.

**Publiko zabalagoa eta berria erakartzeko aukera emango du.**

**M.E.:** Esparru ezberdinetako jendea erakartzen du. Bertso pala jaialdira, pilotazaleak ere joango dira eta bertso zaletuak ere zergatik ez.

**Ekitaldi berezia izango da lehengusuontzat. Bat palan, beste bertsoan, lehia bizian.**

**M.E.:** Jai Batzordetik oraindik ez digute abisurik pasa. Ez dakit oraindik lehengusuaren alde edo aurka egin beharko dudana. Ez dakit zer nahiago dudana ere, baina familia arteko halako ekimen bat publiko aurrean egitea polita izaten da beti. Gainera festa giroan are gehiago.

**Lau pala jokalarri, baina herri-tarra zeu bakarria Miriam. Gainerako kideak, nortzuk dira?**

**M.A.:** Nirekin jokatu duena Larrarte bidaniarra izango da. Kontra, Leire Galdos oiartzuarra eta Ane Maiza zizurkildarra.

**Ezagunak izango dituzu noski zure jardunetik?**

**M.A.:** Bai, nire klubekoak dira denak. Proposatu nien, baiezkoa eman zidaten. Ez da oso erraza festetan jendea ekartzea eta behintzat taldea osatu dugu eta ez da gutxi.

## “Zubietarrak ezagututa, giro onik ez da faltako”

**NOAUA! Denboraldi honen balantzea egin beharko bazenu, zer esan Miriam?**

**M.A.:** Urria aldera hasten gara eta maiatzera arte, lauazpost txapelketa izaten ditugu. Gero udan berez atsedendia, baina ezin. Nahiko gustura nago egunik denboraldiarekin. Orain Palentzian egon naiz txapelketa bat jolasten, esperientzia berri bat.

Aurrera segida emango diogu honi.

**Arraun munduan ibilia, bertsoarako jauzia nolako izan zen Markel?**

**M.E.:** Arraun mundua utzia dut egia esan. Halere, Aginagako festetan trainerillak baldin badaude, bi aldiz pentsatu gabe joango gara. Bertsoan 9 urterekin hasi gi-

nen bertso eskolan. Etortzen diren sariketa txiki horiei beti baiezkoa emanez nabil. Osinalde, Goierri aldean egiten den sariketa batean parte hartu izan dut, Zarauzko Lizardin eta gero herrira begirako ekitaldietan, Sagardo Eguna, edo Santa Agendan. Txapelketa zalea ez naiz. Egia esan, Zubietara bezalako plaza, niretzako moduko saltsa da hori.

Halako eskaera bati ezin zaio ezetz esan.

**Zubietako saiora doanak zer aurkituko du?**

**M.E.:** Zubietara bezalako herri txiki batean oso giro gozoa. Esperimentu berri bat da hau. Zubietarrak ezagututa, giro onik ez da faltako.

**M.A.:** Zerbait berria izanda jendea etorriko da.

# Zubieta Pilota Elkarte, gaztetroen harrobi bizia

Uztailaren 25erako es-treinakoz antolatu du-ten bertso pala jaialdiaren aurretik, gaztetroen Joko Garbi erakustaldia ospa-tuko da. Pozik eta gustura da-biltza Zubieta Pilota Elkarteko gaztetroak.

“Iparraldean joko garbian lehiatu dira azken aldian. Zor-tziko multzo batean zegoen taldea Donibane Lohizune, Azkain, Ustaritz, Angelu eta Villabonako taldeekin batera. Azkenean, laugarren bukatu ondoren, final laurdenetera iritsi dira eta bertan galdu egin zuten Amikuze talde indar-tsuaren aurka”, berri eman dio NOAAU!ri Zubieta Pilota Elkar-tetik. “Eginiko lanarekin gus-tura bukatu dute aurtengo den-boraldia”, gaineratu dutenez.



Ondoko argazkian dituzue, ezkerretik eskuinera: Gorka Arrillaga, Peru Eraunzetamurgil eta Xuban Urdalleta.

**bugati**  
ERRETEGIA

**OILASKOAK IKATZ-BRASAN ERRETEGIA  
eta UMEENTZAKO JOLASTOKIA**

Arrapide Pasalekua, 74  
20160 Zubieta (Donostia)

☎ 943 37 76 62    📍 Bugati Erreteria

**Ondo pasa SANTIOETAN!**

TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK  
· HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK  
· KARTA · AFARI MUSIKALAK  
· OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK

**Äraeta**  
sagarjotegia

**UDA GUZTIKO OSTEGUNETAN  
PINTXO&MUSIC 1,5€  
MUSIKA ZUZENEAN ETA KOKTELEROA**

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049



**Irvin** Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!

Petritza bidea 12, Zubieta

943.361.229

**ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN**

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakean.

Begiraleekin antolatutako jarduerak.

**657 794 677**

[www.begi-bistan.com](http://www.begi-bistan.com)  
[info@begi-bistan.com](mailto:info@begi-bistan.com)

*Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**BARAZAR**  
OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN  
AFARIAK EGUNERO  
BAZKARIAK IGANDE ETA  
JAIEGUNETAN

**943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA**

**ALAMANDEGI JATETXEA**

- Astean zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

*Ondo pasa Santioetan!*

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!  
 Urbitarte kalea 1, 20160 Zubieta



## Garaiz hartu tokia

Jai Batzordeak, kalean, festak lagun artean ospatzeko hamaika aitzakia eskainiko dizkigute egunotan. Baita jan edana ere, eta horregatik, lekua garaiz erreserbatzeko gonbita luzatu digute. Honatx Zubietako jaietan antolatu diren otorduak:

### Uztailak 27, ostirala

21:30, herri afaria

■ Txartelak uztailaren 22ra arte salgai Alamandegin.

### Uztailak 28, larunbata

14:00, jubilatuen bazkaria

■ Barazar jatetxean ospatuko den bazkarirako izena uztailaren 21a baino lehen eman, 634 879 207 (Arantzazu) telefono zenbakira deituta.



Otordu ezberdinak antolatu dituzte eta txartelak aldeaz aurretik erosi behar dira. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

### Uztailak 29, igandea

14:00, paella prestaketa

15:00, paella jana

■ Paella janerako, "kuadrila bakoitza ardura dadila beha-

rezko osagaiak eta tresneria ekartzeaz. Bertaratzeko asmoa izanez gero, Alamandegin aurkituko duzuen zerrendan apuntatu kuadrilako kide kopurua".

### Uztailak 31, asteartea

14:00, zikiro jatea

■ Txartelak uztailaren 23ra arte Alamandegin egongo dira salgai.

ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA

FABRIKAZIO MEKANIKOA

ADMINISTRAZIOA

ENERGIA ETA URA, INSTALAZIOAK ETA MANTENUA

## Usurbilgo Lanbide Eskola

43 URTE PERTSONAK HEZTEN!

[www.ihusurbil.eus](http://www.ihusurbil.eus)

Ondo pasa Santiotan!

Goi eta Erdi Mailako ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza IKASTAROAK

Berrikuntza PROIEKTUAK

...

**USURBILGO LANBIDE ESKOLA**  
CIFP USURBIL LHII

# Zubietako Herri Jaiak hastera doaz

## Uztailak 25, asteazkena:

### Santio Eguna

- 09:00 Esnadeia Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.
- 10:30 Meza Nagusia.
- 11:30 Txupinazoa eta soka-dantza.
- Ondoren, luntx herrikoia.
- 18:00 Herriko gaztetxoaren eskutik Joko Garbi erakustaldia.
- 19:00 Bertso Pala frontoian. Pilotariak: Larrarte-Arrillaga Galdos-Maiza Bertsolariak: Markel Eizagirre eta Beñat Jauregi.
- Jarraian, buruhandiak.
- 22:00 2000. urteko Herri Antzerkiaren proiektzioa Errebote Plazan: "Markesaren Etxean".

## Uztailak 26, osteguna:

### Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera, trikitixa doinuekin alaituta.
- 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

## Uztailak 27, ostirala:

### Umeen Eguna

- 10:00 Jolasen hasiera.
- 13:30 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, "eta gure kontu postrea eta sorpresa".
- 16:00 Puzgarriak, Guraso Elkartearen eskutik.
- 17:30 Txokolatada eta buruhandiak.
- Ondoren, apar festa, Guraso Elkartearen eskutik.
- 20:00 Poteo herrikoia. Txosnan, Txalagore taldea.
- 21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.
- 00:00 Laiotz.

## Uztailak 28, larunbata:

### Jubilatuen Eguna

- 09:30 Meza.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, Barazar Jatetxean.
- 16:30 Gaztetxoaren antzerkia Kaxkapen.
- 18:00 Herri Kirol saioa, Kañamarens aita-semeak aizkoran eta



Jaien hasierako suziria uztailearen 25ean piztuko dute, goizeko 11:30ean. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Jokin Auzmendi harri jasotzen.

- 19:30 Sardin eta piper jatea.
- 23:30 Txorroskilo eta Rukula taldeen kontzertuak.
- Ondoren, Eronomia taldearekin goizaldera arte dantza egiteko aukera.

## Uztailak 29, igandea

- 12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak Errebote Plazan, Bertso Eskolaren eskutik.
- Eguerdian, bertso poteoa eta II. Puntu Txapelketaren Sari banaketa.
- 14:00 Paella prestaketaren hasiera.
- 15:00 Paella jatea.
- 18:30 Patxi Ta Konpania tal-

dearekin dantzaldia.

- 22:00 Bertsolariak: Eli Pagola, Unai Mendizabal, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

## Uztailak 30, astelehena:

### Gaupasa Eguna

- 16:00 Mus txapelketa (15:30tan Izen ematea).
- 17:30 Toka txapelketa.
- 00:00 Kontzertuak: Koban, Parabellum. Dj Seymarrekin goizaldera arte.

## Uztailak 31, asteartea:

### San Inazio Eguna

- 09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.

- 10:30 Meza.

- 11:30 Zubietarren arteko errebote partida.
- 14:00 Zikiro jatea.
- 18:00 Gorritiren Showa.
- Ondoren, buruhandiak.
- 23:00 Herriko jaien amaiera traka eta suziriekin.
- Amaitzeko, musika txosnan.

Oharrak:

- Jaietan gerta litezkeen ezbeharretan, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.
- Musika egunero egongo da txosnetan gau eta egun.
- Jaietan ez da onartuko inolako erasorik.
- Antolatzailea: Zubietako Jai Batzordea.

# Usurbil gozatu! Ugartondo

1.go faseko  
**AZKENEKO**  
etxebizitzak!

2 logeletako azkena, 78m<sup>2</sup> erabilgarria  
69m<sup>2</sup> terrazarekin!!!  
garajea eta trastelekua barne  
**264.000€+ BEZa**

Efizientzia  
energetikoa "A"  
eta ingurune  
naturalaz inguratua



**jaureguizar**

943 579 366

619 508 392

Kale Nagusia, 10 · Usurbil

[www.jaureg.com](http://www.jaureg.com)

# Abuztuaren 3a, auzotarren egunpasa

Bertaratu nahi duen orori irekia egongo den festa izango da, baina bereziki noski, auzotik auzotarrantzat antolaturiko festak dira Urdaiagakoak. Etxekoek protagonismo berezia izango dute San Esteban Egunean. Goizeko meza saioa, paxientxi jan eta dantza saioaren ostean, jolas ezberdinetan neurtuko dituzte indarrak arratsalde partean. Eta indarberritzeko, herri afaria abuztuaren 3an, Amaia Agirreren gidaritzapean, Ane Labaka, Miren Artetxe eta Nerea Ibarzabal bilduko dituen bertso saio ederraren aurretik.



**Mus txapelketa abuztuaren 4an jokatuko da. Izen-ematea 15:30ean irekiko da eta partidak 16:00etan hasiko dira. Irudian, iazko irabazleak. Argazkia: Ainhoa Seguroa.**

## Mus txapelketa

Festen denboraldia, urtean zehar etenik ez duen mus zaletuena ere bada noski. Jai guztietan ezinbestekoan bi-

lakatzen da mus txapelketa. Xanistebanetan ere bai. Abuztuaren 4an, larunbatez duzue hitzordua. Izen emateko hurbildu 15:30etik 16:00etara Urdaiagara eta segidan abiatuko

da karta jokoak. Lehen sailkatuentzat, opari eder askoak iragarri ditu Jai Batzordeak:

■ 1. saria: marisko bandeja bana, txapela eta txanpain botila.

■ 2. saria: urdaiazpiko paleta bana, kopa eta txanpain botila.

■ 3. saria: kilo bateko txuleta bana eta txanpain botila.

■ 4. saria: txorizo eta gazta bana eta txanpain botila.



Lizarralde  
ORTOPEDIA

# Bizi kalitatea hobetuz

Ondo pasa Santiatan!

Asteleheneretik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 10:30-13:00

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Arreta pertsonal eta espezializatua

☎ Online eta telefono bidezko aholkularitza

👤 Salmenta ondorengo zerbitzua

🏠 Etxera banaketa

🛠 Eskailera igogailuen instalazioa

🛒 Komun eta etxebizitzaren egokitzapena

✅ Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza

🛠 Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza

👣 Zapata eta ortesi gama zabala

**ALOKAIRUAN:**  
gurpildun  
aulkiak,  
ohe artikulatuak

Lizarralde Ortopedia  
Kazkazuri plaza 1 - behea  
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583  
andoni@lizarraldeortopedia.eus  
www.lizarraldeortopedia.eus

# Urdaiagako jaiak, aurtengo egitaraua

## Abuztuak 3, ostirala:

### San Esteban Eguna

- 10:00 Txupinazoa.
- 11:00 Meza nagusia.
- Ondoren, paxientxi eta ardo-goxo banaketa.
- Jarraian, herriko dantzariak.
- 17:00 Helduen jolasak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 21:00 Herri afaria.
- 23:00 Bertsolariak: Ane Labaka, Miren Artetxe eta Nerea Ibarzabal. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
- Ondoren, Joxpa Erromeria.



Helduen arteko jolasak abuztuaren 3an egingo dira, arratsaldeko 17:00etan hasita. Argazkia: Ainhoa Segurola.

## Abuztuak 4, larunbata:

### Umeen Eguna

- 10:30 Umeen jolasak eta pintura lehiaketa.
- Ondoren, buruhandiak.
- 13:00 Umeen bazkaria (norberak ekarria, edaria eta postrea bertan banatuko dira).
- 15:30-16:00 Muserako izen

ematea.

■ 16:00 Mus txapelketa.

■ 17:00 Umeentzako eskulan tailerrak.

■ 18:30 Txokolate jana.

■ Ondoren, buruhandiak.

■ 21:00 Musikarien afaria.

■ Gauean: Kezka, Odolaren

Mintzoa eta Ezten Giro erromeria!

Antolatzailea: San Estebango

Jai Batzordea.

**ONDO PASA SAN ESTEBANETANI!**

**URTINEA**

*Jantzi kolorez zure etxe, balkoi zein lorategia!*

Era guztietako aukerak oparitzeko: garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak, lore-sortak...

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

**SANATORIO de USURBIL**

USURBILgo SENDATEGIA

San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98  
info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com

*Ondo igaro festak!*

O.P.R 92/16

bai zerbitzua euskaraz

certified IQNet

AENOR

AENOR



# Kentuene

JATETXEA

---

Sagaltxipi baserria, 23  
20170 Usurbil · Gipuzkoa  
Tlf: 943 361 127 · Fax: 943 373 317  
[www.kentuene.com](http://www.kentuene.com)

*Ondo pasa Sanestebanak!*

# Udaren azkenetan, jaiak Atxegalden

## Abuztuak 24, ostirala

- 17:30 Kalejira-poteoa herrian zehar, Elektropapo-k lagunduta.
- 20:00 Txupinazoa eta luntx mundiala.
- Ondoren, buruhandiak.
- 23:00 Kontzertu gaua: Kezka, Rukula, Gozo Gozo taldea (Berbena).

## Abuztuak 25, larunbata

- 11:00 Umeentzako jolasak eta opari banaketa.
- 14:00 Herri bazkaria (norberak etxetik ekarritakoa, edaria eta postrea batzordearen kontu).
- 16:00 Mus Txapelketa.
- 15:30-16:00 muserako izen ematea.
- 18:00 Bubble Soccer, haurrentzako jokoa.
- Segidan, txokolatada eta buruhandiak.
- 21:00 Herri afaria, Aritz eta Ruben musikariek lagunduta. (txartelak Artzabal, Bordatxo eta Txirristran salgai, 15 euro).
- Gauean: Eromeria (Berbena), DJ Elepunto.

## Abuztuak 26, igandea

- 11:30 Toka txapelketa.
- Jarraian, haragi, txorizo eta salda banaketa.
- 17:00 Mastertxeff Txiki; sukaldari lehiaketa.
- 18:30 Bertso musikatuak. Bertsolariak: Alaia Martin, Ohiana Iguaran, Jon Maia eta Iñigo Mantzisor "Mantxi". Gai Jartzailea: Haritz Casabal "Kazz". Musikariak: Gari Otamendi (bibolina) eta Ixak Arruti (kitarra).
- 22:00 Azken traka.

Antolatzaila:

Atxegaldeko Jai Batzordea.



Iaz bezalaxe, Ohiana Iguaran bertsolaria kantari arituko da Atxegalden. Aurtengo bertso saio musikatuan, Alaia Martin, Jon Maia eta Iñigo Manzisidor 'Mantxi' izango ditu bidelagun.



Martertxeff Txiki sukaldari lehiaketa jaien azken egunean egingo da, abuztuaren 26an igandea.

# Dantzak Kolonbia, Polonia eta Euskal Herria batu ditu

Munduko dantzen erakusleioan bilakatu zen Usurbil joan den uztailearen 15ean. Kalejira eta erakustaldi koloretsu eta txalotua ospatu zen eguerdian frontoian. Kolonbiako Creadanza, Poloniako Kostrzanie eta Igorreko (Bizkaia) Arantzarte Dantza Taldeak bildu zituen hitzorduak. Norberak, bere sorterriko dantzak plazaratu zituen. Munduko dantza, kultura eta herri ezberdinak hobekia- go ezagutzeko aukera aparta izan zen. Euskal Herriko txoko ezberdinak zeharkatzen aritu diren topaketen baitan antolatu zuten Usurbilgo hitzordua, bisitan izan ditugun Igorreko Arantzarte Taldeak eta Usurbilgo Orbeldi D.T.-k, Usurbilgo Udalaren laguntzaz.



Argazkian, Igorreko (Bizkaia) Arantzarte Dantza Taldekoak.

## Laboaren Uztaila, azken txanpan

Ostegun gau musikatuaren zikloak badu oraindik hitzordurik uztaila amaitu artean. Uztailearen 19an, 22:00etan hasita, Mikel Urakenen saioa. Eta amaitzeko, hilaren 26an, Sokartean dator Usurbila.

### Hurrengo saioak:

- Ordua: 22:00.
- Tokia: Mikel Laboa plaza.
- Uztaileak 19, osteguna: Mikel Urakenen.
- Uztaileak 26, osteguna: Sokartean.
- Oharra: ekimen auto-gestionatua da. Ekitaldian borondatea emateko aukera izango da. Gainera, aurrez boletoak eskuratzen dituztenen artean, euskal musikari hainbatek ziklorako emandako lanen zozketa egingo da.



Ezkerretara, Kolonbiako Creadanza taldea. Eskubitara, Poloniako Kostrzanie dantza taldeko kide batzuk.

**Uraltz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
uraltz@uraltz.com USURBIL

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak

649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
600 024 825



# Erraustegirako gasa sartzeko lanak aurrera doaz

Lanen ondorioz, Amiri-Santuenea arteko bidea itxita egongo da gutxienez abuztuaren 31ra arte. Bidea itxita egongo da guztiz, lan orduetan, astelehenetik ostirale-ra 8:00-19:00 artean, eta agian abuztuko zenbait larunbatetan, 8:00-14:00 artean. Lan orduetatik kanpo, oinezko eta bizikleta erabiltzaileentzat zabalik izango da, baita ezinbestean pasabide hau ibilgailu motorduneari igaro behar duten inguruko bizilagunentzat. Gogoan izan bestalde, lanon ondorioz, Usurbil eta Hernani arteko T6 bus zerbitzua Zubietatik desbideratu dutela. Handik joan etorriak egiteko, behin behineko bus zerbitzua ezarri dute Amiritik Lasarteko Euskotrenen geltoki pareko errotonda ondoraino.



Amiri-Santuenea bidea itxita egongo da gutxienez abuztuaren 31ra arte.

## GuraSOS-en emisio gehiago, Zero Zona kanalean

Youtuben martxan duen ikus-entzunezko kanalean, asetero albistegi, erreportai eta

elkarrizketak plazaratzen segiko du GuraSOsek. Gogoan izan, erraustegiaren kontratuari buruzko xehetasunen berri ematen segitzeak dira asteotan.

# Berrialagunak 1.300 euro banatu ditu



Joseba Irazabal, Andoni Aizpeolea eta Josune Aranbururentzat izan dira hiru sariak.

Usurbilen erosten zuenak uda honetan sari potoloa izango zuela iragarri zuten. Berrialagunak diren Usurbilgo saltokietan azken asteotan erosketak egin dituztenen artean, 1.300 euro zozketatu zituzten. 500 euroko sari bana jaso dute Joseba Irazabalek eta Andoni Aizpeoleak. Josune Aranburuk Tipi Tapan parte hartu dutenen

arteko 300 euro saria. Zorionak!

Gainera, Berrian publizitatea egiteko aukera eman nahi izan zaie kanpainan parte hartu duten saltokiei. Hauen artean zozketa egin, eta 500 euruko publizitatea eskuratu zuten Laukote Kafetegiak eta Esnaola lurrin dendak. 300 eurokoa Bordatxo tabernak.

Ekimena Berriak, Usurbilgo Udalak, Hurbilago Elkartek eta Berrialaguna kanpainarekin bat egin duten ostalari eta merkatariek sustatu dute, uztailearen 13ra arte erosketak aipatu saltokietan egin dituzten bezeroen artean. Berriak, euskarak, Usurbilgo merkataria eta ostalariak eta herritarrek, denak irabazten ateratzea zen helburua.

## Birgaitze lanak hastear dira Zumarten

Usurbilgo Udalak "Udalberri" aldizkarian iragarri duenez, hilabete honetan bertan hastekoak dituzte Zumarte Musika Eskolaren eraikina handitu eta birgaitzeko lanak.

Gogoan izan, obra hauen kontratua Construcciones Moyua S.L.-ri esleitzea erabaki zuen aho batez udalbatzak, ekainaren 27ko osoko bilkuran. Guztira, 1.981.219,02 euroko inbertsioa (%21eko BEZ barne) bideratuko du Udalak egitasmo honetara.

Urtebeteko epea dute obrak amaitzeko. Honenbestez, 2019-20 ikasturterako erabilgarri egon behar luke, musika eskolaren eraikin eraberritu eta handituak. Bitartean, irailean hasiko duten ikasturte berrian, amaitu berri duten honetan bezala, herriko gune desberdinetan segiko dute musikariek; Udarregi Ikastolan, Santueneko frontoi ondoko lokalean, eta Zumarteren bulegoak, Puntapax kaleko garai bateko atez ateko bilketaren egoitza izandakoan.

## Baba Beltz Txikiaren kofradiaren festa

Aipatu elikagaiari gorazarre egiten dion lau hamar-kadako tradizioa berrituko dute aurten ere abuztuaren 30ean. Azken urteon antzera, Saizar Sagardotegian. Baba txikiaren bueltan, jan edanean edota kantuan egiten duten eguerdi parteko jai giroan, 21. kofrade kidea izendatuko dute aurten: Iñaki Almandoz. Bazkari-tarako lekua erreserbatzeko eta Saizarrekin hartuemanetan jartzeko: 943 364 597 edo sidrassaizar.com

# Autobus zerbitzuen gaineko planifikazio berria onartu du Foru Aldundiak

**M**ugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren “Tolosa, N-I eta Buruntzaldea, eta Donostiarekin dituzten loturak” proiektua onartu zuten Diputatuen Kontseiluak aurreko astean. Linea berriak eta hobekuntzak iragarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. “Linea berriek Tolosa eta Lasarte-Oria zuzenean Donostiarekin lotzeko komunikazioak indartzen dituzte, eskualde osoaren eta ospitaleen zonaren arteko komunikazioa hobetzen dute, eta gaueko eta puntako orduetako zerbitzuak indartzen dituzte”, adierazi dute Diputaziotik, prentsa ohar bidez.

Guztira, 18 linea erregular, iraunkor eta orokorrez (14 egunez, 4 gauetarako) osaturiko kontzesioa izango omen da. Erabiltzaileen eskaera handiagoa antzeman duten ibilbide eta ordutegietan zerbitzua indartzeko apustua egin du Foru



Aurreikusiak dauden murrizketen aurka agertu izan da Udala, baita herritarrak edota autobusetako langileak ere.

## FORU ALDUNDIA

**“Ospitaleen zonarekin lotura bermatuko da, baita asteburuetan ere”**

Aldundiak. “Tolosarako eta Buruntzalderako mugikortasun-eredu iraunkorrago baterako bidean aurrerapauso bat da”, adierazi du Marisol Gar-

mendia, Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasuneko foru diputatuak.

## Ospitaleetarako linea

Usurbili dagokion aipamen zehatzik ez da egiten Foru Aldundiak argitara emandako oharrean. Gogoan izan, maiztza hasieran Usurbilgo Udalak Diputazioko Mugikortasun Departamenduko ordezkari-

rekin izandako bileran, Usurbil eta Zubietatik Hernanirantz doan linea mantenduko dutela baina udalerrri honetatik ospitaleetara doan zerbitzua ezabatuko dutela esan zitzaizen Usurbilgo udal ordezkariet ahoz. Ospitaleetara eskainiko diren autobus zerbitzuei dagokienez, honakoa aipatu du Foru Aldundiak. “Ospitaleen zonarekin lotura bermatuko da, baita asteburuetan ere, 46 zerbitzu berrien bitartez”, diote Diputaziotik.

## Lehiaketa bidezko esleipena

Diputatuen Kontseiluak Tolosaldeko eta Buruntzaldeko autobus zerbitzuen gaineko proiektua onartu ostean, iragarri dutenez, “lehiaketa publiko bidez haiek esleitzeko lizitazio-tramiteak hasiko dira”. Aurrez, proiektuaren gaineko xehetasunak, laster ezagutu ahalko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

## Usurbilgo Udala: “Foru Aldundiak ez digu aldaketan inguruko informaziorik igorri”

Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakia gutun bidez jakinarazi dio egunotan Usurbilgo Udalari, esanez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituztela “proiektuaren xehetasun guztiak, aurkeztutako alegazioei emandako erantzunekin batera”.

Urratsak ematen joan ahala informatzen joango direla erantzun dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Udalari. “Gure gardentasun-konpromisoaren esparruan, emaki-

da berria onartu, esleitu eta abian jartzearekin zerikusia duten garrantzizko gai guztien inguruko informazioa emango dugu unean-unean”.

Gutunaren aurrean, Udaltetik sare sozialen bidez erantzun dutenez, “Aldundiak berri ere ez digu bidali aurrez idatzizko informaziorik autobus-zerbitzuan egingo dituen aldaketei buruz, eta Udalak eta herritarrek egindako alegazioei emandako erantzunaren berri buletinean izango dugu”.

## Milaka sinadura eta alegazio

Aurreikusiak dauden murrizketen aurka agertu izan da Udala, baita herritarrak edota autobusetako langileak ere. Foru Aldundiak iazko irailean gai honen inguruko aurreproiektua ezagutzera emanez, murrizketak iragarri zituenetik hauek bertan behera utzi eta elkarriketaren bidetik adostasun batera heltzea eskatzeko 7.000 sinadura eta 5.000 alegazio aurkeztu dira. Autobus gidariek ere kezka agertu izan dute, aurreikusitako murrizke-

tak aplikatuko balira, 30 langileek baino gehiagok lanpostuak gal ditzaketelako.

## Garraioetako greba, bertan behera

Uztailaren 13, 14, 20 eta 21erako bidaiarien errepide bidezko garraio zerbitzuetan deitua zegoen greba azken orduan bertan behera geratu zen, akordioa erdietsi eta langileek bermatzea eskatzen zuten eskubideak barne hartzen zituen hitzarmen berria adostu ostean.

# Euskaraldia gizarteratzen

**H**erri eragileen eta herritarren atxikimenduak biltzeko ahaleginean segitzen du, urte amaierako Euskaraldia Usurbilen antolatzeko lanean den herritarren batzordeak.

Aldizkari honekin batera, euskararen erabilera areagotzeko azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko den ekimenaren gaineko xehetasunak biltzen dituen eta parte hartzeko gonbita luzatzen duen eskuorria jasoko duzue.

## Izen-ematea irailaren 20an zabalduko da

Herritarrentzako izen ematea irailaren 20an zabalduko da. “Ahobizi” edo “Belarriprest”



Jaietan ipini zuten kartelak zioen bezala, azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko da Euskaraldia. Izen-ematea irailaren 20an zabalduko da.

gisara parte hartu ahalko da Euskaraldian, edota antolaketa lanetan ekarpenak eginez. Hu-

rrengo batzar irekirako hitzordua ere finkatu dute; irailaren 6rako 18:00etan Potxoenean.

# Euskaltegian matrikulatzeko garaia

**I**kasturte berrian, euskara ikasi edo hobetu nahi duenak Etumeta AEK euskaltegian matrikulatzeko aukera izango du iraila hasieratik.

## Izen emateko eta informazio gehiago:

Nagusia, 43  
607 609 379  
usurbil@aek.eus  
aek.eus  
muntteri.blogspot.com.es



Korrikako iragarkiaren grabaziorako protagonista eta “estra” bila dabilta.

## Korrika badator

Datorrena Korrika urtea izango da. Prestaketa lanak abiatu dituzte jada. 21. Korrikaren iragarkia grabatuko dute irailaren

11n, 13an eta 17an. Grabaziorako protagonista nahiz “estra” bila dabilta. “Profil desberdinetakoak behar ditugu, adin guztietakoak” eta breakdance dantzariak. Interesa dutenek idatzi dezatela, esan@aek.eus helbidera, argazki batekin. Abuztu amaieran jarriko dira harremanetan, izena eman dutenekin. Iragarkiaren egileek hautatuko dute grabaziorako taldea. Informazio gehiago: korrika.eus

# Utopiaz hausnartzen eta ikasten

**U**surbilgo sagardoarekin topa eginez amaitu zizuten uztailaren 13an, bi eguneko ‘Utopia 68/18 iruditeria berrien bila’, UEU-k, Jakin-ek eta Usurbilgo Udalak antolaturiko jardunaldiak. Bederatzi aritu eta aditu aritu ziren utopia klasiko eta berriez, zaintzaren utopiaz edota utopia sozio-ekologikoz hausnartzen Artzabalén, bi eguneko ospatutako saioetan.



Usurbilgo sagardoarekin topa eginez amaitu ziren Jakin Jardunaldiak.

## Euskal presoek eskubideen aldeko udako mobilizazio hitzorduak

Udako hilabeteotan ez dute etenik izango, euskal presoek eskubideen alde mobilizatzeko deialdiek. Uztaileko eta abuztuko azken ostiraletarako elkarretaratze bana deituko du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Bestalde, abuztuko lehen igandean, Etxerat-ek dispersio politikaren amaitzea eskatzeko kontzentrazioak deituko ditu Euskal Herriko hondartzetan. Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik Orion egingo den mobilizazioa joatera deitzen dute. Laburbilduz, segidan dituzte datozen mobilizazioen hitzorduak:

■ Uztailak 27, ostirala: 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

■ Abuztuak 5, igandea: 12:00 Elkarretaratzea hondartzetan. Usurbildarrei Oriokora joateko deia egiten zaie.

■ Abuztuak 31, ostirala: 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

## KzGuneko hurrengo hitzorduak

Uztailaren 30era arte arratsalde zabalduko dute KzGunea, 16:00-20:00 artean. Abuztuan itxita izango da. Irailaren 3tik aurrera zabalduko dute berri, goizez, 09:00-13:00 artean. Hemen datozen ikastaroen berri:

■ Uztailak 26-27, 16:00-18:00 “Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik”.

■ Uztailak 30, 16:00-18:00 “Ordainketak Interneten segurtasunez”.

■ Irailak 4-17, 09:00-11:00 “Oinarriko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi”.

# Aitor Aranguren Errasti, onenen artean

S an Juan bezperan Tolosako Beotibarren debutatu zuenetik udako jaialdietan dabil, irailetik aurrera hasiko diren txapelketak noiz helduko zain. Maila profesionalera igo berri den 18 urteko aginagarrak, argi du, lan egin, ikasi eta ahal bada noski, irabaztera irten nahi du kantzara, duen onena ematera. Asegarcetik fitxatu berri duen Aitor Aranguren Errasti elkarrizketatu dugu lerrootan, kuttunena duen bere Aginagako frontoian.

**NOAUA! Debut egunetik hilabetera, estreinaldiak zer oroitzapen utzi dizu.**

**Aitor Aranguren Errasti:** Aurretik urduritasun eta presio gehiago sentituko nuela uste nuen, baina eguna heldutakoan urduri baina nahiko gustura aritu nintzen. Orain, hilabete igarota egun berezi gisa oroitzuten dut, gehiago oroitzuko naiz hemendik aurrera.

**Bereziki jasotako babesagatik?**

Aginagar asko joan ziren animatzera, Usurbilgoak ere bai, koadrilako eta lagunak, denei eskerrak eman nahi dizkiet.

**Nola gauzatu da Asegarceren fitxaketa?**

15 urterekin aurre kontratu



Debutean, "aginagar asko joan ziren animatzera, Usurbilgoak ere bai, koadrilako eta lagunak. Denei eskerrak eman nahi dizkiet".

## AITOR ARANGUREN ERRASTI

**"Uda da urte garai onena pilotarientzat, partida gehien udan izaten dira.**

**Ikasten joateko oso denboraldi ona egokitu zait"**

modukoa sinatu nuen Asegarcerekin, hiru urterako. Aurrekontratu hori betetzerako de-

butatu egin dut. Berasaluzek nire urtebetetze egunaren bezperan esan zidan debutatzeko aukera emango zidatela eta hitz egingo genuela. Entrenatzera joan eta maila eman behar da debutatzeko. Afizionatu mailan dezenteko maila ematen ari nintzen eta aukera eman zidaten.

**18 urterekin ohikoa da halako fitxaketa bat egitea pilota enpresa batek? Zer bilatzen**

**dute?**

Orain gazte debutatzen dugu. Orain gazte jendea nahi dute, etorkizuna izan dezakeena, hobetzen segi dezaketena.

**Fitxaketak oso une egokian harrapatu zaitu?**

Aldaketa polita izan da, gainera udan harrapatu nau. Uda da urte garai onena pilotarientzat, partida gehien udan izaten dira. Ikasten joateko oso denboraldi ona egokitu zait.

## "Lan hau ikasketekin uztartu beharko dut"

**NOAUA! Nolako fitxaketa osteko zure egunerokoa?**

**Aitor Aranguren Errasti:** Orain ere gustura jokatzen dut baina lehen jokatzeraz gozatzera ateratzen nintzen. Orain lan modukoan bilakatu da. Egutero entrenatu, maila fisikoa landu, gustura egiten dugu. Udan lasaia gabilta, baina irailetik aurrera zailagoa izango da.

Lan hau ikasketekin uztartu beharko dut.

**Asegarcerekin duzun kontratua aipatu eta pentsa daiteke orain arteko bizimodua goitik behera aldatu zaizula.**

Ezin da dena utzi. Bi urterako kontratua dut sinatua. Berritzen ez badut, hortxe geratzen naiz. Pilotan ez da

esaterako, futbolearen bezala. Futbolearen maila profesionalen urte batzuk egin eta ia guztia egingo izan dezakezu. Pilotan 20 urte jokatu behar dituzu eta Aimar bezala, onena izan, bizitza hortik egiteko. Pilotaria izateak etorkizunera begira lanerako gauzak errazten ditu baina orain bertan ez.

**Aldatuko ez dena, azken aldiko elkarrizketetan argi utzi nahi izan duzun moduan, Aginagarekin duzun lotura.**

Usurbilgoa naizela esaten didatenean, beti diot Aginagakoa naizela. Oso agiñarra naiz. Hori ez da aldatuko, ez da hautsiko. Beste norabaitera bizitzera joanda ere, agiñarra naizela esango dut beti.

# “Ia lan polita egiten dugun”

**NOAUA!** Zuretzat erreferenteak izan diren pilotariekin bizi eta jokatzeko egokituko zaizu aurrerantzean. Nola ikusten dituzu orain pilotari horiek denak beste alde horretatik?

**Aitor Aranguren Errasti:** Barrutik ezberdin ikusten dira. Beraiek ere asko laguntzen dute. Aimarrek eta entrenatzaileak asko lagundu zidaten debutean. Gustura nabil, lasaitasuna helarazten dute eta normal ibiltzen gara.



“Nik urtebete edo bi nituenean amaitu zituzten frontoi honetako lanak. Nik hala ezagutu dut Aginaga”.

**Udara begira, abuztu mugitua omen dator kizu.**

Uztaila lasai doa lau bat partidekin, baina abuztuan eta irailean izaten dira partida gehienak. Orain pilota jaialdiak izaten dira eta irailetik aurrera txapelketak. Bigarren mailakoak jokatzeko espero dut irailetik aurrera. Ia lan polita egiten dugun.

**Pilota munduan inoiz baino gehiago, eguneroko lana da ardatz.**

Eta ez lesionatzea, partidak jarriz gero hobetzea eta lehen mailara heldu eta txapelak irabaziz gero gehiago jokatzen duzu, horretan dago gauza.

## AITOR ARANGUREN ERRASTI

**“Aimar Olaizolak eta entrenatzaileak asko lagundu zidaten debutean”**

**“Jokatzeko modalitate guztiak ditut gustuko”**

**Aginagako frontoian gaude, zure haurtzaroko pilotalekuan. Hamaika oroitzapen izango dituzu, bertara hurbiltzean.**

Kuttunena da. Txikitatik hemen hasi nintzen, nik urtebete edo bi nituenean amaitu zituzten frontoi honetako lanak. Nik hala ezagutu dut Aginaga. Etzekoek esaten dute hemen plaza zegoela, baina nik fronto-

toiarekin ezagutu dut. Usurbilgo ikastolara joan arte hemen pasa dut bizitza osoa, oso gustura. Lagunekin ere bai, eta eskerrak haiei ere, egunero pilotan ibiltzen baikin.

**Lehenbizi Aginagan, eta gero Usurbilen.**

Usurbilen lau bat urte egin nituen. Gero osabak hona ekarri ninduen, zaharragoekin entrenatzera eta osabari ere eskertua nago denagatik. Pagazpen 9 bat urte egin ditut.

**Osaba aipatu duzu, pilota eta pala munduarekin lotura estua dute etzekoek. Babesa eta animuez gain, hainbat aholku ere jasoko zenituen.**

Normala den bezala familiakoek beti lagundu eta babesa ematen dute. Palan ibiltzen zen ama, lehengusua pilotan. Frontoi askotara joan gara ikustera. Orain osabarekin ikasten.

**Pilotazaletasuna etxean jaso duzu.**

Etxean beti kirola, eta pilota ikusi izan dut. Pilota ere asko ikusi eta ikasi izan dut. Gustura pilota ikusten eta jokatzen ere bai.

**Pilotari bezala zer ibilbide jorrratu nahi zenuke Asegarcerekin?**

Lan egin, ikasi, hobetzen joan, txapelketak ahal bada jokatu. Jokatzeko modalitate denak ditut gustuko. Ahal badut hirurak jokatu eta irabazteko aukera bada irabazi. Bestela ikasten joan.

**Pilotari gisa zer berezitasun dituzu?**

Nik uste pilota gutxi galtzen dudala. Nahiko gogorra naiz. Ezker eskuarekin ondo pasatzen dut pilota, eskubiarekin gehiago kostatzen zait. Hobetzeko zerbait egon behar du, bestela alferrik da. Hortxe ari gara ikasten.

## “Pilota, indartu beharreko kirol jarduera da”

**NOAUA!** Lanean eta ikasten ariko zara irailetik aurrera.

**Aitor Aranguren Errasti:** Kiroletako goi gradua. Kirola dut gustuko eta oso polita da.

**Erabat lotua pilotari gisa egiten ari zaren ibilbideari.**

Horixe nahi nuen, gero pilota edo eskola kiroleko entrenatzailea izateko. Gustuko dut kirola eta biak uztartu ditzaket gainera.

**Pilota kirol jarduera huts bat**

**baino gehiago da zuretzat.**

Kirol jarduera indibidualagoa da, baina taldean entrenatu eta lagun arteko giro ederra izaten da. Beste kirol jarduera batzuetan adibidez, aurkariak aparte izaten dira askotan. Pilotari aurkariarekin oso ondo eramaten gara.

**Frontoian ere giro bera nabari duzue?**

Irujo-Aimar pike handia egon zen urte askotan. Publikoak aurkaria gutxietsi beharrean,

bere aldekoa animatzen zuen. Pilotako giroa oso polita da; zurearen alde egitea, aurkaria bakean utzita.

**Pilotariok kantxan zaudetela, sumatuko duzue publikoan zer giro dagoen.**

Ez da ikusten baina gero jabetzen zara zer gertatzen den. Apustu zaleak ere izaten dira, partida aurretik esaten duten zeinen alde edo kontra dagoen eta horrek pixka bat aldatu egiten du kontua.

**Nola erakarri pilota mundura gaztetxoak, beste kirol jarduerak batzuk izanik zaletu gehien biltzen dutenak?**

Apuntatu egiten dira 8-9 urterekin. Jolastera joaten dira. Baina 11-12 urterekin lehiatzen hasi behar duzu, takoekin, pilota gogorrekin eta hor jada uzten joaten dira. Eskuekin sufritzen da. Entrenatu behar duzu, gogorragoa da eta uzten dute. Usurbilen eta Aginagan pilota, indartu beharreko kirol jarduera da.

# Zubieta, Gipuzkoako erreboteko txapelduna

Zubietak irabazi du Gipuzkoako Erreboteko Txapelketa. Larunbat goizean jokatu zuten final handia Oiartzungo Txost taldekoen aurka, Villabonako plazan. Azken emaitza; Zubietak 13, Oiartzungo Txost taldea 2.

Esan beharrik ez, tarte handiz irabazi zietela Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Jon Argote, Endika Garzia eta Ugaitz Rezola zubietarrek oiartzuarrei. Zorionak! Zubietak, Oiartzunek eta Villabonak parte hartu dute amaitu berri den txapelketan.



Oiartzungo Txost taldearen aurkako partidaren ondoren irabazten zuten Zubietako taldea.

# Buruntzazpi taldea, bigarren



Erlojuz kontrako taldekako txapelketan, Beñat Carbayeda, Jaime Romero eta Asier Pozo hirukoteak osaturiko taldeak bigarren amaitu zuten.

Erlojuz kontrako taldekako txapelketa jokatu da asteburuan Legorretan. Buruntzazpi bigarren postua eskuratu zuten, taldeko kide Beñat Carbayedak, Jaime Romerok eta Asier Pozok 26,60 kilometroko ibilbidea ia 36 minututan, ba-

taz beste 44,1 kilometro ordutako abiaduran osatu ostean.

## 11. Baxurde Krossa, irailaren 16an

Herri lasterketa ezagunak berriz ehunka kirolari batuko ditu bi hilabete barru Usur-

bilen. Hamaikagarren edizioa irailaren 16an ospatuko da. Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak antolaturiko probarako izen ematea aurrez bideratzeko aukera egongo da. Informazio gehiago: [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com)

## Igerileku txikia handitzeko lanak irailaren hasiko dira

Uztailean abiatzea aurreikusi arren, irailetik martxora egingo ditu Udalak Oiardo Kiroldagiko igerileku txikia handitu eta irisgarrian bihurtzeko lanak. Ordura arte beraz, udan ohiko martxan segiko du Kiroldagian.

## Abuztuaren 1etik 15era, itxita

Gogoan izan, urtero moduan itxita izango da Oiardo oporregatik, abuztuaren 1etik 15era. Gainerakoan, irailera arte, udako ordutegia izango dute indarrean:

## Lan egunetan:

7:00-13:00/17:00-20:15

-Igerilekuaren itxiera:

12:45/20:00.

## Larunbatetan:

9:00-13:00

-Igerilekuaren itxiera:

12:45.

## Igande eta jai egunetan:

9:00-13:00

-Igerilekuaren itxiera:

12:45.

# Arlaban-Arantzazu txangoa



Urte hasieran abiatutako Gipuzkoako Birari segida eman go dio Andatza M.K.T.-k.

Irailaren 9rako iragarri du seigarren etapa, Arlaban-Arantzazu artekoa. Adi, izen emate

tea aurrez bideratu beharko da ohi bezala. Informazio gehiago: andatza.com

# Usurbil Cup, oporren bueltan



Futbolak jokoan jarriko ditu ohi bezala, ehunka gaztetxo udako oporren amaieran. Usurbil FT-k antolatutako Usurbil Cup lagun arteko txapelketa irailetik urrira jokatuko da.

## Yoga, aeroyoga eta reiki ikastaroak

### Santuenean

Santuenea Kultur Elkarteak yoga ikastaro berriak iragarri ditu. Aurten, berritasun batekin. Lehen aldiz, aeroyoga egiteko aukera egongo da. Kulunka batean egiten den fitness, yoga edo pilates ariketetatik haratago doa aeroyoga: bizi-kalitatea hobetzen lagun dezakeen teknika batean datza; ez ditu soilik gaitasun fisikoak kualitatiboki garatzen (indarra, tonifikazio muskularra, abilezia, elastizitatea, edertasuna eta oreka), baita burukoak eta emozionalak ere. Arintasuna, memoria eta autoestima garatuz.

### Eskaintza:

#### Yoga

■ Astean behin asteartez, edo astean bi aldiz astearte eta ostegunetan 20.30ean.

#### Reiki

■ Ostegunetan arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

#### Aeroyoga

■ Klaseak astean bi aldiz izango dira: astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan.

■ Errestauratiboa.

### Matrikula epea:

Irailaren 15era arte.

### Izen-ematea:

Telefonoz edo whatsapp-ez. Yoga eta Reiki: 619 791 170 / 670 027 731.

Aeroyoga: 615 715 991 / 670 027 731.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

ETXETRESNEN  
**KONPONKETAK eta SALMENTA**  
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER Usurbil

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ORDUTEGI BERRIA:  
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro<sup>2</sup>, 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbiderekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m<sup>2</sup>ko pisua salgai Aginagan, 65m<sup>2</sup>ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro<sup>2</sup> lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafekazioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukal-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

de handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Pisu bat alokatzen dut. 3 logela, egongela, 2 bainugela. Altxariak jarrita daude. Dena kanpo aldera, oso eguzkitsua eta garajearekin. Tel. 659 786 28

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Pisu bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 getetako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Erre-

katxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Abtegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da asteburuetako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaile edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko espe-

rientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nintzake, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaile, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872.

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez.



**Zorionak Ibai!**  
Muxu asko  
etxekoan  
partetik!



**Zorionak Ekhi!**  
Ilgandean 8 urte  
beteko dituzu.  
Merendola eder  
batekin ospatuko  
dugu! Muxu handi  
bat!



**Zorionak Uxue!**  
Asteazkenean  
13 urte beteko dituzu!  
Muxu handi bat,  
Garazi, ama eta  
aitaren partetik!



Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketeta lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketeta lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketeta lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221

372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketeta lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketeta lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zain-

tzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketetan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen,

garbiketeta lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketetan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketetan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldari)

dearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketeta lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketetan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketeta lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

#### BESTELAKOAK

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpurua Okindegitik pasa, bertan dago.

Erlorju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahaia, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Ambulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeo Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 19** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 20** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 21** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 22** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 23** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 24** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 25** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

## Uztailak 19 - Uztailak 29

**Osteguna 26** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 27** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Larunbata 28** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 29** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda uztaila

## 19 osteguna

■ **Laboaren Uztaila: Mikel Uraken.** 22:00etan, Mikel Laboa plazan.

## 20 ostirala

■ **Elkarretaratzea, Ucin-en isurketa kutsakor-  
rrak salatzeke.** 19:00etan Mikel Laboa pla-  
zan. Antolatzailea: herritar talde bat.

## 23 astelehena

■ **Furgobaratza Baratze Parkean.** 18:00-  
19:30, Agerreazpiko parkean.

## Abuztuaren 5ean, Musika Hamabostaldiko organo kontzertua Salvatore parrokian



Marina Tchbourkina arratsaldeko 20:00etan arituko da Salvatore parrokian.

Urtero moduan, Donostiako Mu-  
sika Hamabostaldiaren baitan  
organo kontzertua antolatu dute  
Usurbilgo Udalaren laguntzaz, abuztua-  
ren 5ean Salvatore Parrokian. Jatorriz  
errusiarra den Marina Tchbourkinaren  
emanaldiaz gozatzeko aukera izango da  
arratsaldeko 20:00etan. “Jatorri errusia-

reko organista ezagunak Youri Boutsko  
konposagilearen “Deuxième Grand Ca-  
hier d’Orgue” obraren mundu mailako  
estreinaldia eskainiko du, Usurbilgo Mu-  
tin organoan”.

**Informazio gehiago:**  
quincenamusal.eus

## Ucin-en isurketak salatzeke elkarretaratzea

Urte luzez kezka eragin dute herritarren  
artean, Atxegalde ondoko Ucin enpresa-  
ren isurketek, arnastu behar izan den ke  
kutsakor eta usain txarrak. Udalak ere  
hainbat kexa jasotzeaz gain, zigor espe-

dientea ere ireki izan dio aipatu lantegia-  
ri. Etenik gabekoak izaten segitzen dute  
herritarren kexek.

■ **Elkarretaratzea:** Uztailearen 20an ostirala,  
19:00etan Mikel Laboa plazan.

### Datozenak

#### Sokartean bikotearen kontzertua

Laboaren Uztaila bakarlari zikloaren  
4. edizioaren baitan, Sokartean biko-  
tea arituko da Usurbilen. “Sokartean  
Txabeli Sierrak eta Maitane Ezpeletak  
osaturiko biolin eta gitara duo da.  
Bi instrumentuen sokak elkarrekin  
nahastu egiten dira giro eta soinu ez-  
berdinak lortuz”, antolatzaileek adi-  
tzera eman dutenez. Sokartean-eko  
kideen helburu nagusia “musika gi-  
zartera hurbiltzea da, horregatik gure  
musika espazio ezberdinetara erama-  
tea gustatzen zaigu”. Sokartean biko-  
teak eusklasikoak eskainiko ditu, giro  
akustiko batean.

#### Uztailak 26 osteguna

■ Ordua: 22:00.  
■ Tokia: Mikel Laboa plaza.

#### Elkarretaratzea

Euskal presoen eta haien senideen  
eskubideen aldeko mobilizazioa,  
Usurbilen Nahi Ditugu taldeak dei-  
tuta.

#### Uztailak 27 ostirala

■ Ordua: 20:00.  
■ Tokia: Mikel Laboa plaza.



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

**943 36 91 39**

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil





# ANORGA TXIBI S.L

## KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!  
perfil bertikalik gabe!!  
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!  
aukera zabalak!

Beirazko itxitura  
**seeglass one**  
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak  
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



# Ondo pasa Santiotan!!

